

LAUKIZ eta MARURI-JATABEko EUSKARA ZERBITZUA

eUTSI!

2009ko URRIA - 25 ZK.

UDAZKENEAN BE
JAIGIROAN

A green-tinted photograph of a group of women standing outdoors, some holding papers, with a large roasted pig in the foreground. The scene appears to be a public event or ceremony. The women are dressed in light-colored blouses and some are wearing traditional Euzko beltza scarves. In the foreground, a large roasted pig is visible on a metal stand. The background shows a building and other people.

LAUKIZTIK NIKARAGUARA

“Leonekin” izeneko ONGDak Nikaraguan daukan boluntarioentzako programa ezagutu nuen eta abuztu osoa bertan igaro dut martxan dagoen proiektu batean lan egiten. Honen helburua, txirotasunean bizi diren familien umeak saltzen kaleetatik, merkatuan beraiekin edo kaleetan zehar ez ibiltzea da eta horrela ikasketekin jarraitzeko aukera daukate.

Ni egunero joaten nintzen “Las Tias” tokira ahal nuen guztian laguntzeko. Lehenengo orduan umeek garbiketa egiten dute, gero etxeko lanak eta azkenik jolasteko denbora daukate bazkaldu baino lehen. Arratsaldean beste talde bat egoten da eta gauza bera egiten dute. Egunero egiten diren ekintzen bitartez heziketa eta baloreak lantzen dira.

Baina ez da egin dudak gauza bakarra. Asteburuetan Nicaragua ezagutzeko aukera izaten genuen eta bidaia asko egin ditugu. Asteazkenean zehar, lagunekin edo egin berri genituen lagunekin geratzen ginen afaltzeko edo kontzertuetara joateko.

Horrela, Leoneko giroa, kultura eta jendea ezagutzeko aukera genuen. Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da, asko ikasi dut!! Aukera ona izan da beste herri bat ezagutzeko eta munduko herri ezberdinetako pertsonekin harremanetan egoteko.

Gainera, Nicaragua herri interesgarria da ezagutzeko jasan dituen aldaketa politikoengatik eta daukan egoera ekonomikoagatik. Batez ere, garrantzitsuak izan diren bi momentu aipatu daitezke: Espainiako kolonia bihurtu zenean eta denontzat ezaguna den Sandinismo mugimendua sortu zenean. Politikarien handinahakeriek herria txirotasunean murgildu dute eta jende gehiena egoera latzean bizi da.

Argiñe Ugarte



SANTA KURTZE MARURI-JATABEN



Aurtengo Santa Kurtzen inoiz baino ekintza gehiago izan dugu. Hasteko irailaren 11n, barikua, Ane Albi-su etorri zitzaigun Kultur Etxera **“GURE JANTZIAK AZKEN 100 URTETAN. NOLA ATONDU GAUR EGUN”** izeneko hitzaldi-proiektzioa aurkezteko. Gure jantzi eta janzeren azalpena apurka apurka deskribatu zuen irudi ezberdinak erabiliz. Oso kontu interesgarriak agertu ziren eta bertaratuek benetan ondo pasatu zuten. Amaitzeko, Anek eta bere gizonak, gaur egun, zapi, gerrikoa eta abarkak jartzeko “tailer praktikoa” eskeini ziguten. Aukera galdu zuena erne egon: datorren azaroaren 13an, Laukizen egongo dira eta.

Irailaren 13a, domeka, egun ederra zuten aurrean jatabetarrok: **XI MARURI-JATABEKO MENDI IBILALDIA**. Aurten, hamaikagarren ediziora heldu gara eta okertu barik ediziorik arrakastatsuen izan dela esan dezakegu. Guztira 400 lagun baino gehiago animatu ziren Felipe Alzagak prestatutako ibilbideari ekiteko. Nagusiak (eta gazte batzuk) goizeko 8.30etan Udaletxeko plazan prest zeuden. Urruti, Añeka eta Billelabaso pasa ondoren Andrakaraino heldu ziren guztiek jaso ahal izan zuten batetik, sagarra eta ura indarrak apur bat berritzeko eta bestetik aurtengo oparia: poltsatsoa. Handik aurrera geratzen zen bide gehiena aldapa behera zenez, azkoz errezago iruditu zitzaizen partehartzaileei. Txikiak berriz gurasoekin batera goizeko 10etan atera ziren eta Elexpurutik pasa ondoren Garaizar errotaraino abiatu ziren. Hauexek bertan izan zuten sagarra, ura eta oparia.

Amaitutakoan eta ohikoa denez, hamaiketako ederra dastatu ahal izan zuten denok: txorizoa, buskentza, saltxitxa, solomoa eta hirugiharrea... Egun ederra pasa zuten denok eta esandakoaren arabera denok poz-pozik.

Eguna borolbiltzeko **NAGUSIEN OMENALDIA** izan genuen Ibaiondo erretegi. Jakingo duzunez, duela urte batzuk hona urtean, 80 urte bete dituztenei omenaldia egiten zaie. Aurten hauexek izan dira omenduak: Hilaria Landa, Florencia Abarrategi, Justo Alzaga, Dolores Muruaga, M^a Carmen Elortegi eta Vicenta Iturain. Zorionak danoil!

Guztira 100 lagun inguru elkartu ginen prestatutako bazkari ederra eta goxoa dastatzeko eta osteko zozketarekin barreak egiteko. Aurten ere denetarik izan dugu, emozioa, negar-tantak, baina batez ere ohikoa den giro aparta!

Datorren urtean berriro danok elkar ikustea espero dugu!! (bai mendian, bai bazkarian!)



LAUKIZKO JAI AK





MARURI- JATABEKO JAIK



EUSKARA LIBURUTEGIRA II

Irailean hasi da berriro “Euskara liburutegira” programaren bigarren zatia. Programa honek euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzea du helburu nagusia, baina bide batez liburutegia topaleku bihurtzea eta ume, gazte zein nagusi liburutegira hurbiltzea lortu nahi da. **Hemendik gogoratu nahi dizuegu familia osoak parte hartzeko ekintzak direla** (ez umeek bakarrik).



Irailetik abendura izango ditugun ekintzak bai Laukizen, bai Maruri-Jataben, honakoak izango dira:

- Ipuinak kontatu Kamishibai teknika erabiliz.
- Munduko ipuinak interpretatu. Ezagunak diren ipuinak kontuan hartuz, eta protagonisten txotxongiloak eginez antzerkitxoa egin beharko da.
- Ipuin klasikoetatik ipuin asmatuetara. Txanogorritxo, Mari Errauskin eta Ahatetxo itsusiaren istoriak hartu eta aldrebestu egingo ditugu istoria berriak eta dibertigarriak sortuz.
- Gabonetako istorioak eta apaingarriak. Olentzero, euskal mitologia, eta gabonetako istorioak entzun eta apaingarriak egingo ditugu, gero bakoitzak bere etxera eramateko.

Gogoratu ekintzak hauek, hilean behin egiten direla arratsaldeko Setan Laukiz eta Maruri-jatabeko liburutegietan.

(Begiratu azken orrian noiz izango den hurrengoa).



JATABEGINTZA

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Jatabegintza taldeak proiektu barri baten parte hartzeko deia zabaldu eban herriko jaietan. Boliviako Cochabamba herrian dagoan “Esperanza” zentroan hainbat ume jaiobarririk behar izaten dabean fototerapiarako lanpara bat erosi nahi genduan. Ba, hara: Lortu dogu! Zentroaren arduradaroen mojak, “Esclavas del Amor Misericordioso” alkartekoak, ondorengo karta hau bialdu deuskue, eskerrak emoteko.

Bolivian, 2009.eko irailaren 24an



Maruri-Jatabeko herritar maite-maiteok!

Hartu dogu zuen laguntza: 1.700 euro, FOTOTERAPIARAKO LANPARA erosteko. Ama eta ume jaiobarrientzako “Esperanza” zentroan erabiliko dogu, jaiobarrien ikterizia (gibeleko mina) osatzeko.

Eskerrak emoteko berbarik ez dogu aurkitzen. Bihotz-bihotzez, gure eskerrik sendoenak Jatabegintza taldeari, kasu honetan Jainkoaren laguntzaren tresna bultzagilea izan dalako, horretarako bihotz oneko hainbat eta hainbat jenderi dei eginez. Bakoitzaren apurrak guztion piloa egin dau.

Argazkiren bat ere atara dogu, zuen laguntzaren fruitua ikusi ahal izan daizuen. Hor doakizue gure ospitalean zesarea bidez jaiotako azkeneko umearen irudia.

“Esperanza” zentro honetan ama eta jaiobarrien zerbitzuan diharduen alkartearen izenean, mila esker zuen laguntzagaitik. Zorretan gagoz zuekin. Dana dala, ordaintzailerik onena Jainko Aita-Ama dogunez, erregutu egiten deusagu zuen alde. Berak bedeinkatu zagiezala eta lagundu daizuela zuen ibilbide eta ekintzetan. Berak emon daizuela bakea eta bizi-poza, era askotara herrialde apalei on egiten jarraitu ahal izan daizuen.

Egunero egiten dogu otoitz ongile guztien alde bihotzez. Esan beharrik ez dago otoitz horretan jatabetarrok toki berezia dozuela.

Boliviatik, besarkada bana.

Mary Luz eta Manuela

Gure asmoa, beraz, bete dogu. Dana dala, ondo dakigu gure asmoak guztion laguntza barik ezin daitekezala bete. Horregaitik, gure esker ona agertzea tokatzen jaku. Bihotz-bihotzez, ba, eskerrak:

- Zozketarako paperak saltzen lagundu deuskuenei eta erosi dabezenei.
- Zozketatu zan koadroa emon euskun familiari.

Jatabegintza

S. Lorentzo jaietan, aurreko urtean lez, zozketa bat antolatu genduan. Suerteak Maribi Egiari egin eutsan keinua eta halan irabazi zituan koadroa eta pernila.

On egin dagioela biak!. Zorionak!

AGENDA

LAUKIZ

- Urriak 23.** Euri jasa dela eta bertan behera geratu ziren Kotxe gabeko eguneko ekintzak izango dugu: Bizikleta martxa (kaskoa derrigorrezkoa) Txokolate jana eta bizikletaren zozketa.
- Urriak 24.** Umeen euskal jai. Tailerrak, euskal jolasak, globoflexia, txotxongiloak, pailazoak...
- Urriak 25.** Laukiz Kulturala: "Zazpi astoren gainean" bertso triki poteoa eta antzerkia euskaraz "Ezker-
eskuma".
- Azaroak 13.** Hitzaldia Ane Albisuren eskutik "GURE JANTZIAK AZKEN 100 URTETAN. NOLA ATONDU GAUR EGUN". Atxispén aratsaldeko 19.00etan
- Azaroak 15.** LORE JOKOAK Egun osoan Plazan frontoian...
- Azaroak 21.** Bertso Bazkaria, Atxispén
Azaroan ere zine emanaldia izango dugu Atxispén.

ERNE EGON ETXERA HELTZEN ZAIZUEN INFORMAZIOARI!!!!

MARURI-JATABE

- Urriak 2.** Jaietako argazkien proiektzioa. Mendi Ibilaldiaren argazki lehiaketan aurkeztutako argazkien proiektzioa eta sari banaketa. Arratsaldeko 19.00etan Atxispén.
- Urriaren amaieran edo azaroan: "Maruri-Jatabeko bizimodua" liburuaren aurkezpena. Kultur Etxean
Azaroan ere zine emanaldia izango dugu Kultur Etxean.
Azaroan, Bertso afaria

ERNE EGON ETXERA HELTZEN ZAIZUEN INFORMAZIOARI!!!!

LIBURUTEGIKO EKINTZAK

Laukiz:	Maruri-Jatabe
Irailak 18	Irailak 25
Urriak 16	Urriak 23
Azaroak 13	Azaroak 20
Abenduak 4	Abenduak 11

Saio guztiak liburutegian izango dira arratsaldeko 17.00etan
OHARRA: Ekintza hauek ume eta gurasoei zuzenduta daude
PARTE HARTU!!

ABESTU GEUGAZ!!

NOLA ZU AHAZTU (SEIREN)

Lotu gintuen haria moztu egin zen aspaldian
izandakoa baztertu ezinean,
izan ezintasunean.

Zu ikusten zaitut begiak ixtean
desagertzen zara argia itzultzean.

Esaidazu,
Nola jarraitu aurrera?
Nola bizi, zu ez zaitudala?
Nola arnastu, falta zaidan airea?
Nola zu ahaztu?

Ez dira atzoko sastadak orbaina ireki dutenak
hain gertu izanik, hain urrun zaudela
iristerik ezin dela.

HITZAK: Jokin Lacalle
MUSIKA: Onintze Garcia

ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

Maria Fernandez
Araitz Gogenola
Jatabegintza
Argiñe Ugarte
Saioa Sanz




MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura



euskara biziberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskara



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA